

## **4/2022 FORU ARAUA, ekainaren 22koa, Finantza-transakzioen gaineko Zergari buruzkoa (BAO Ekainaren 27koa)**

Jakinarazten dut ezen Bizkaiko Batzar Nagusiek Finantza-transakzioen gaineko Zergari buruzko ekainaren 22ko 4/2022 Foru Araua onartu dutela, 2022ko ekainaren 22ko Osoko Bilkuran, eta arau hori aldarrikatu eta argitaratzeko agindua ematen dudala, araua aplikatu ahal zaien herritar, norbanako eta agintari guztiek bete dezaten eta betearaz dezaten.

### **FINANTZA-TRANSAKZIOEN GAINEKO ZERGARI BURUZKO EKAINAREN 22KO 4/2022 FORU ARAUA**

#### **HITZAURREA**

Otsailaren 8ko 1/2022 Legea otsailaren 9an argitaratu zen BOEn, Lege honen bidez, aldatu egin zen Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsia.

Onespenaren bidez, Ekonomia Ituneko artikuluei 2021eko uztailaren 29ko Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren Lehenengo Akordioaren edukia gehitzen zaie. Akordio hori Bizkaiko Batzar Nagusiek berretsi zuten abenduaren 13ko 7/2021 Foru Arauaren bidez, eta, horren arabera, itundutako tributu batzuen ituntze-arauak aldatu dira eta bi zerga gehiago itundu dira.

Itundu berri diren zergetako bat finantza-transakzioen gaineko zerga da. Indarreko Ekonomia Itunaren 34 bis artikulua arabera, zerga horri Estatuak aldi bakoitzean ezarritako arau substantibo eta formal berak aplikatuko zaizkio. Hala ere, aitorpen- eta sarrera- ereduak onesteko eta likidazio-aldi bakoitzeko sarrera-epeak zehazteko ahalmena izango dute. Baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ez dira Estatu Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

Horregatik, xedapen hau eman behar da, gure ordenamenduan txertatzeko zerga berri honen gaineko arauak, Ekonomia Itunean haren ordainarazpenerako finkatutako lotura-puntuak aintzat hartuz.

Ildo horretan, zerga-egoitza non duten gorabehera, zergadunek Bizkaiko Lurralde Historikoan likidazio-aldi bakoitzean egindako zergapeko eragiketen bolumenaren proportzioan ordainduko diote zerga Bizkaiko Foru Aldundiari. Proportzio hori honako ehuneko honen arabera izango da: egoitza Bizkaian duten sozietateen akzioekin lotutako eragiketen zerga-oinarriaren ehuneko, subjektu pasibo bakoitzaren guztirako zerga-oinarriari dagokionez.

Zerga hau 5/2020 Legearen bidez sortu da (5/2020 Legea, urriaren 15ekoa, finantza-transakzioen gaineko zergari buruzkoa), inguruko herrialde batzuek (Frantziak eta Italiak, esate baterako) hartutako ildo beretik. Lege horrek karga hauek Europako eremuan hobeto koordinatzen lagunduko du.

Zerga-egitatea Espainiako sozietateen akzioak kostu bidez eskuratzea da, eragiketan parte hartzen duten pertsonen edo entitateen egoitza non dagoen kontuan eduki gabe.

Beraz, ezarpenaren printzipiotzat jaulkipenaren printzipioa hartuko da, uste baita egoitzaren printzipioarekin baino txikiagoa izango dela finantza-bitartekariak deslokalizatzeko arriskua, Espainiako sozietateetako akzioak kargatzen baitira, finantza-bitartekariaren bizilekua edo egoitza eta eragiketa negoziatzen den tokia non dauden kontuan eduki gabe.

Halaber, zerga honek aurrean aipatutako entitateen akzioen gordailu-ziurtagiriak ere kargatuko ditu.

Nolanahi ere, zerga hau ez zaie aplikatuko Espainiako sozietateen akzioen eskuraketa guztiei, baizik eta soilik araututako merkatuan negoziatzeko onartutako akzioak dauzkaten sozietateen akzioen eskuraketei, transakzioa negoziazio-zentro batean egin zein beste toki batean egin, baldin eta sozietatearen burtsako kapitalizazio-balioa 1.000 milioi eurotik gorakoa bada. Muga hori jarrita lortu nahi da zergak ahalik eragin txikiena edukitzea merkatuaren likidezian, baina aldi berean zergaren bilketa potentzialaren ehuneko oso altua izatea bermatuta.

Zergaren kargatik salbuesten dira lehen mailako merkatuko berezko eragiketa batzuk, merkatuen jardun egokirako beharrezkoak direnak, enpresa berregituratzeko egin beharrekoak, ebazpen-neurriek eragiten dituztenak, talde bateko sozietateen artean egiten direnak eta aldi baterako lagapenak.

Zergaren sortzapena gertatzen da kostu bidez eskuratzen diren baloreen idatzoharra (eskuraketa da zerga-egitatea) zergadunaren alde egiten den unean, berdin delarik idatzoharra balore-kontu batean, gordailu edo zaintza zerbitzua egiten duen finantza-entitate baten liburuetan, balore-gordailuzain zentral baten erregistroetan zein partaidetzako entitateen erregistroetan egin.

Zerga-oinarria kontraprestazioaren zenbatekoa da, transakzioarekin lotutako gastuak zenbatu gabe. Hala ere, arau bereziak ezartzen dira baloreen eskuraketa obligazio edo bonu bihurtarri edo trukagarriak, finantza-tresna eratorriak edo beste finantza-tresna edo finantza-kontratu betearazi edo likidatzearen ondorioz gertatzen den kasuetarako eta baloreak egun berean eskuratu eta eskualdatzen diren kasuetarako.

Zergaduna baloreen eskurazailea da. Subjektu pasiboa, oro har, baloreak eskuratzeko agindua jakinarazten edo betearazten duen finantza-bitartekaria da: bere kontura ari bada, zergadun gisa da subjektu pasiboa; aldiz, hirugarrenen kontura ari bada, zergadunaren ordezkari gisa da subjektu pasiboa.

Azkenik, zergaren aitortzeaz eta sarreraz denaz bezainbatean, araudi bidez antolatuko da zer kasutan eta nola egin behar dituen zergaren aitortzea eta zerga-zorraren sarrera egoitza Espainiako lurraldean daukan balore-gordailuzain zentral batek subjektu pasiboaren izenean eta kontura. Horrela automatizazio-maila handia lortuko da zergaren kudeaketan.

Aurreko prozedura aplikatu ezin den kasuetan subjektu pasiboak autolikidazioa egin beharko du.

Bizkaiko Lurralde Historikoko foru erakundeen hautapenari, antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 55. artikuluko 1. eta 3. zenbakietan xedatutakoa betez, memoria ekonomikoaren gaineko txostena erantsi zaio foru arau honi, bai eta genero-eraginaren ebaluazioaren gaineko txostena ere.

Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan (Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duena) ezartzen diren izapideak bete dira.

## **1. artikulua. Izaera eta aplikazio-eremua.**

1. Finantza-transakzioen gaineko zerga zeharkako zerga da eta akzioen eskuraketak kargatzen ditu foru arau honetan ezartzen den bezala.
2. Zergaren aplikaziorako ez da kontuan edukiko non gertatu den eskuraketa, ez non dagoen eragiketan parte hartzen duten pertsonen edo entitateen bizilekua edo egoitza.

## **2. artikulua. Aplikatu beharreko arauak.**

1. Indarreko Ekonomia Itunaren 34 bis artikuluan xedatzen denaren esparruan, zerga hau foru arau honetan eta berau garatzen duten xedapenetan ezartzen denarekin bat etorri eskatuko da.

2. Foru arau honetan xedatutakoa gorabehera, indarrean jarraituko du barne-ordenamenduan txertatutako nazioarteko itunetan eta hitzarmenetan xedatutakoak.

### **3. artikulua. Zergaren ordainarazpena eta ikuskapena.**

1. Zerga-egoitza non dagoen gorabehera, subjektu pasiboek Bizkaiko Foru Aldundiari ordainduko diote zerga, Bizkaiko Lurralde Historikoan likidazioaldi bakoitzean egindako zergapeko eragiketen bolumenaren proportzioan.

Liquidazioaldi bakoitzean Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako eragiketen proportzioa honako ehuneko honen arabera izango da: egoitza Bizkaian duten sozietateen akzioekin egindako eragiketen zerga-oinarriaren ehuneko subjektu pasiboaren guztirako zerga-oinarria. Ehuneko hau bi hamarrenekin biribilduta emango da.

2. Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio zerga ikuskatzea, baldin eta subjektu pasiboaren egoitza fiskala Bizkaiko Lurralde Historikoan badago, ukitutako gainerako tributu-administrazioen elkarlana baztertu gabe, eta ondorioak izango ditu administrazio eskudun guztien aurrean, haiei dagokien tributazio-proportzioa barne.

Ikuskapen-jarduketa horien ondorioz zorren bat jaso edo kopururen bat itzuli behar dela agertzen bada, eta zor edo itzulketa hori hainbat administrazioei badagokie, Bizkaiko zerga Administrazioak kobratu edo ordainduko du. Administrazioen arteko konpentsazioak gero emango dizkiote batak besteari, beharrezkoa bada.

Bizkaiko Foru Aldundiaren organo ikuskatzaileek euren jarduketan emaitzen berri emango diete ukitutako gainerako administrazioei. Administrazio eskudunak egiaztapenetan ezarritako proportzioak zergadunarentzat ere ondorioak ekarriko ditu, likidatutako betebeharren inguruan, baina horrek ez du galarazten egiaztapen horien ondoren bi administrazioen artean behin betiko beste proportzio batzuk erabakitzea.

### **4. artikulua. Zerga-egitatea.**

1. Zergaren kargapean daude kostu bidez egiten diren Espainiako sozietateen kapitalaren adierazgarri diren akzioen eskuraketak, Kapital-sozietateen Legearen testu bateginak 92. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik (testu bategin hau uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi zuen), honako inguruabar hauek gertatzen direnean:

- a) Sozietatearen akzioak negoziatorako onartuta egotea Espainiako edo Europar Batasuneko beste estatu bateko merkatu batean (merkatu arautua izan behar da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren finantza-tresnen merkatuei buruzko 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/UE Zuzentarauaren arabera) edo hirugarren herrialde bateko antzeko merkatu batean, zuzentarau horren 25.4 artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritik.
- b) Sozietatearen burtsako kapitalizazio-balioa 1.000 milioi eurotik gorakoa izatea eskuraketaren aurreko urteko abenduaren 1ean.

Letra honetan aipatzen diren eskuraketak zergaren kargapean daude, nahiz eta negozioazio-zentro batean egin (zentro horiek 2014/65/UE Zuzentarauaren 4. artikuluan 1. zenbakiaren 24. puntuan zehazten dira), beste merkatu batean edo kontratazio-sistema baten bidez, barneratzaile sistematiko baten bidez (barneratzaile sistematikoaren definizioa: Balore-merkatuen Legearen testu bategina, 331. artikulua; testu bategina urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Dekretuak onetsi zuen) edo kontratugileen arteko zuzeneko akordio bidez.

2. Horrez gainera, zergaren kargapean daude:
  - a) Artikulu honen 1. zenbakian aipatzen diren akzioen adierazgarri diren gordailu-ziurtagirien bidez eraturako balore negoziagarrien kostu bidezko eskuraketak, baloreak jaulki dituen entitatearen egoitza non dagoen kontuan hartu gabe.

Hala ere, ez daude zergaren kargapean aurreko paragrafoan aipatzen diren baloreak jaulkitzeko baino egiten ez diren akzio-eskuraketak. Halaber, ez daude kargapean a) letra honetan aipatzen diren gordailu-ziurtagirien eskuraketak, eskuratzaileak trukean haien adierazgarri diren akzioak emanez gero, ez eta gordailu- ziurtagiriak ezeztatzeko titularrei haien adierazgarri diren akzioak emanez egiten diren eragiketak ere.

- b) Artikulu honen 1. zenbakian eta zenbaki honen a) letran aipatzen diren baloreen eskuraketak, baldin eta obligazio edo bonu bihurtzeko edo trukagarriak, finantza- tresna eratorriak edo beste finantza-tresna edo finantza-kontratu betearazi edo likidatzearen ondorioz gertatzen badira (horiek guztiak azaroaren 10eko EHA/3537/2005 Aginduaren 2. artikulua 1. zenbakiaren laugarren paragrafoan zehazten dira; agindu honen bidez Balore-merkatuaren uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 27.4 artikulua garatzen da).

## **5. artikulua. Salbuespenak.**

1. Akzio-eskuraketa hauek ez daude zergaren kargapean:

- a) Akzioen jaulkipenaren ondoriozko eskuraketak.

Gainera, kargatik salbuetsita daude foru arau honen 4. artikulua 2. zenbakiaren a) letran aipatzen diren gordailu-ziurtagiriak, baloreak sortzeko ez beste ezertarako jaulkitako akzioen adierazgarri direnak, jaulkitzearen ondoriozko gertatzen diren eskuraketak.

- b) Akzioak saltzeko eskaintza publiko baten ondoriozko eskuraketak, Balore-merkatuen Legearen testu bateginaren 35.1 artikuluan (testu bategina urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi zuen) zehazten denarekin bat etorritik, inbertsiogileek akzioak lehenengoz eskuratzen dituztenean.
- c) a) eta b) letratan aipatzen direnen aurreko eskuraketak, baldin eta jaulkitzaileek edo eskaintzaileek kontratatutako jartzaileek eta aseguratzaileek akzioak azken inbertsiogileen artean banatzeko asmoarekin egiten badituzte, eta jartzaileak diren aldetik eta, batez ere, eragiketen aseguratzaileak diren aldetik dauzkaten betebeharrak betetzeko egiten dituzten eskuraketak ere bai.
- d) Akzioak burtsarako onartzen direla, merkatua egonkortzeko agindu baten esparruan prezioak egonkortzeko ardura duten bitartekariak egiten dituzten eskuraketak (merkatuak egonkortzeko buruzko arautegia: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 596/2014 (EB) Araudia, 2014ko apirilaren 16koa, merkatuko abusuari buruzkoa eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/6/CE Zuzentaraua eta Batzordearen 2003/124/CE, 2003/125/CE eta 2004/72/CE zuzentarauak indargabetzen dituen).
- e) Kontrapartida-entitate zentral batek edo balore-gordailu zentral batek, baloreen konpentsazioen edo likidazioaren eta erregistroen esparruan dituen egitekoetan ari dela, zerga honen kargapeko finantza-tresnekin egiten dituen erosketak edo mailegu eragiketen edo bestelako eragiketen ondorioz egiten diren eskuraketak.

Honako eragiketa hauek ere letra honetan sartzen dira: kontrapartida-entitate zentralak egin ohi dituzten nobazio-eragiketak eta likidazio gertatutako huts baten ondoriozko berrerosteko eragiketa baten esparruan egiten diren eragiketak, 909/2014 (EB) Araudiarekin bat etorritik (909/2014 (EB) Araudia, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2014ko uztailaren 23koa, Europar Batasunean baloreen likidazioa hobetzeari eta balore-gordailu zentraleri buruzkoa eta 98/26/CE eta 2014/65/UE zuzentarauak eta 236/2012 (EB) Araudia aldatzen dituen).

- f) Finantza-bitartekariak, likidez hornitzeko egitekoetan ari direla, Balore Merkatuko Batzorde Nazionalaren apirilaren 16ko 1/2017 Zirkularrean ezartzen diren baldintzak betetzen dituen likidez-kontratu baten bidez akzioen jaulkitzaileen kontura eragiketen likidez hornitzeko eta akzioen kotizazioa erregularizatzeko ez beste ezertarako,

Balore Merkatuko Batzorde Nazionalak 596/2014 (EB) Araudian (596/2014 (EB) Araudia, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2014ko apirilaren 16koa, merkatuko abusuari buruzkoa) ezarritakoarekin bat etorritik onartutako merkatu-jardunbideen esparruan, egiten dituzten eskuraketak.

g) Merkatua sortzeko jardueren esparruan egiten diren eskuraketak.

Honen ondorioetarako, halako jarduerak dira inbertsio-zerbitzuetako enpresek, kreditu-entitateek edo hirugarren herrialde bateko antzeko entitateek (Europako Batzordeak Europakoaren baliokidetzat jo dituen esparru juridikoa eta gainikuspen-esparrua dituen hirugarren herrialde bateko negozioazio-zentro edo merkatu bateko kideak direnek) egiten dituzten jarduerak, baldin eta norberaren konturako bitartekari modura ari badira negozioazio-zentro batean edo halakoetatik kanpo negoziatutako finantza-tresna batekin, honelako modu hauetako edozeinetan:

1. Aldi berean iragarrita antzeko erosketa-kotizazio eta salmenta-kotizazio irmoak, lehiatzeko modukoak, merkatuari likidezia emanez modu erregularrean eta iraunkorrean.
2. Ohiko jardunean, bezeroek emandako aginduak betearaziz edo bezeroen salerosketa-eskaerei erantzunez.
3. Aurreko 1. eta 2. zenbakietan aipatzen diren jardueren ondoriozko posizioak estaliz.

Salbuespen hau honako kasu honetan ere aplikatuko da, letra honetan arautzen den bezala: foru arau honen 4. artikulua 2. zenbakiaren a) letraren lehen paragrafoan aipatzen diren baloreak eskuratzen direnean.

h) Talde bereko entitateen arteko akzio-eskuraketak (taldea zer den Merkataritza Kodearen 42. artikuluan zehazten da).

i) Bat egiteen, zatiketen, aktibo-ekarpenen, balore-trukeen, aktiboaren eta pasiboaren lagapen osoaren, eta Europako sozietate edo kooperatiba sozietate baten egoitza Europar Batasuneko estatu kide batetik beste batera aldatzearen zerga-araubide berezia aplikatu ahal zaien eskuraketak. Araubide hori 11/2013 Foru Arauaren VI. tituluaren VIII. kapituluaren ezartzen da (11/2013 Foru Araua, abenduaren 5koa, sozietateen gaineko zergari buruzkoa).

Halaber, kargatik salbuetsita daude inbertsio kolektiboko entitateek edo inbertsio kolektiboko entitateen konpartimentuek edo azpifuntsek bat egiteko edo horiek bereizteko kasuan kasuko arautegiaren itzalpean egiten diren eragiketen ondoriozko eskuraketak.

j) Baloreak finantzatzeko eragiketak, 2015/2365 (EB) Araudiaren 3. artikulua 11. zenbakian aipatzen direnak (2015/2365 (EB) Araudia, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2015eko azaroaren 25koa, baloreak finantzatzeko eta berrerabiltzeko eragiketen gardentasunari buruzkoa eta 648/2012 (EB) Araudia aldatzen duena), eta finantza-bermeko akordio baten ondorioz (titulartasuna aldatuta) egiten diren alboko eragiketak (eragiketa hauek aurrean aipatutako araudiaren 3. artikulua 13. zenbakian zehazten dira).

k) 806/2014 (EB) Araudian (806/2014 (EB) Araudia, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2014ko uztailaren 15koa, baterako arauak eta prozedura bat ezartzen dituen kreditu-entitateak eta inbertsio-zerbitzuetako enpresa batzuk azkentzeko Azkentzeko Mekanismo Bakarraren eta Azkentzeko Funtz Bakarraren esparruan eta 1093/2010 (EB) Araudia aldatzen duena) eta 11/2015 Legean (11/2015 Legea, ekainaren 18koa, kreditu-entitateak eta inbertsio-zerbitzuetako enpresak berreskuratzeari eta azkentzeari buruzkoa) ezartzen denarekin bat etorritik Azkentzeen

Batzorde Bakarrak edo kasuan kasuko estatuko azkentze- agintaritzak hartutako ebazpen-neurrien aplikazioaren ondorioz egiten diren eskuraketak.

- l) Norberaren akzioak eskuratzea edo talde bateko entitate batek taldeko sozietate nagusiaren akzioak eskuratzea (taldea zer den Merkataritza Kodearen 42. artikuluan zehazten da) honako helburuetako bat duen berrerosteko programa baten esparruan:
    - 1. Jaulkitzailearen kapitala murriztea.
    - 2. Akzio bihurtu daitezkeen finantza-tresnek dakartzaten betebeharrak betetzea.
    - 3. Jaulkitzailearen edo beraren taldeko beste entitate baten langileei edo administrazio edo gainikuspeneko organoetako kideei akzioak erosteko aukerak edo bestelako esleipen batzuk emateko programen ondoriozko betebeharrak betetzea.
  - m) Enpleguko pentsio-funtsek eta gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek edo borondatezko gizarte-aurreikuspeneko irabazi-asmorik gabeko erakundeek— egindako eskuraketak.
2. Hirugarrenen kontura ari diren subjektu pasiboek artikuluan honen 1. zenbakian ezartzen diren salbuespenak aplikatu ahal izateko ezinbestekoa da eskuratzailerak jakinaraztea salbuespena aplikatu ahal dela eta honako informazio hau ematea:
- a) 1. zenbakiaren a), b) eta c) letretako salbuespenak: jaulkipena edo akzioak saltzeko eskaintza publikoa identifikatu behar da.
  - b) 1. zenbakiaren e) letrako salbuespena: baloreak konpentsatzeko, likidatzeko eta erregistratzeko eragiketak egin dituen entitatea identifikatu behar da.
  - c) 1. zenbakiaren f) letrako salbuespena: likidezia gehitzeko eragiketak egin dituen entitatea identifikatu behar da. Horrez gainera, likidezia-kontratuaren iragarkia aurkeztu behar da.
  - d) 1. zenbakiaren h) letrako salbuespena: sozietate-taldea identifikatu behar da.
  - e) 1. zenbakiaren i) letrako salbuespena: enpresa berregituratzeko prozesuaren eraginpeko entitateak identifikatu behar dira, edo bat egindako edo bereizitako inbertsio kolektiboko entitateak, eta agintaritza eskudunak eragiketa egiteko emandako baimena aurkeztu behar da.
  - f) 1. zenbakiaren j) letrako salbuespena: finantzaketa-eragiketan edo alboko eragiketetan (titulartasuna aldatuta) parte hartu duten entitateak identifikatu behar dira.
  - g) 1. zenbakiaren k) letrako salbuespena: azkentzeko neurriak hartzea eragin duen erabakia identifikatu behar da.
  - h) 1. zenbakiaren l) letrako salbuespena: berrerosteko programa identifikatu behar da.
  - i) 1. zenbakiaren m) letrako salbuespena: enpleguko pentsio-funtsa, gizarte-aurreikuspeneko mutualitatea edo borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundea identifikatu behar da.

Zenbaki honetan aipatzen diren entitateak identifikatzeko, kasu batzuetan entitate juridikoaren identifikatzailea eskatuko da (LEI, ingelesez).

Subjektu pasiboak eta eskuratzailerak komunikazioa egin dela frogatzen duten eta adierazitakoa egiaztatzen duten agiriak gorde beharko dituzte, zerga administrazioak behar balitu ere.

## 6. artikulua. Sortzapena.

Zergaren sortzapena gertatzen da baloreen idatzoharra eskuratzailaren alde egiten denean balore-kontu edo balore-erregistro batean, dela zaintza-zerbitzua egiten duen finantza-entitate batean, dela balore-gordailuzain zentral baten sisteman, baloreen eskuraketa eragiten duen eragiketaren edo finantza-tresnaren likidazioaren ondorioz.

## 7. artikulua. Zerga-oinarria.

1. Zerga-oinarria zergaren kargapeko eragiketen kontraprestazioaren zenbatekoa da, honako hauek sartu gabe: merkatuko azpiegituren prezioen ondoriozko transakzio- kostua, bitartekaritza-komisioa eta eragiketarekin lotutako gainerako gastu guztiak.

Kontraprestazioaren zenbatekoa ez bada inon ageri, zerga-oinarria honako hau izango da: eragiketa egin den egunaren aurreko negoziazio-egunean baloreak likidezia handieneko araututako merkatuan eduki duen itxiera-balioa. Horretarako, likidezia handieneko merkatua zein den ebazteko 2017/587 (EB) Ordezko Araudiaren 4. artikulua aplikatuko da: 2017/587 (EB) Ordezko Araudia, Batzordearena, 2016ko uztailaren 14koa, 600/2014 (EB) Araudia (600/2014 (EB) Araudia, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, finantza-tresnei buruzkoa) osatzen duena negoziazio-zentroei eta inbertsio-zerbitzuetako enpresei akzioen, gordailuzain-ordainagirien, kotizatutako funtsen, ziurtagirien eta antzeko finantza-tresnen gardentasun-baldintzei buruzko arau teknikoek dagokienez eta akzio batzuen inguruko eragiketak negoziazio-zentro batean edo barneratzaile sistematiko baten bitartez egin beharri dagokienez.

2. Artikulu honen 1. zenbakian xedatzen dena gorabehera, zerga-oinarria zehazteko honako arau berezi hauek aplikatuko dira:
  - a) Zergaren kargapeko baloreen eskuraketa obligazio edo bonu bihurtarri edo trukagarriek edo beste balore negoziagarri batzuek eragiten badute, zerga-oinarria horien jaulkipen-agirian adierazten den balioa izango da.
  - b) Baldin eta eskuraketa eragiten duena zergaren kargapeko baloreak eskuratzeko edo eskualdatzeko eskubidea ematen duen erosteko aukera bat edo beste finantza-tresna eratorri bat betearaztea edo likidatzea bada, zerga-oinarria kontratuan ezarritako ariketa-prezinoa izango da.
  - c) Eskuraketa eragiten duena eperako transakzioa den tresna eratorri batek eragiten badu, zerga-oinarria itundutako prezinoa izango da. Salbuespena: tresna eratorria araututako merkatu batean negoziatuz gero, zerga-oinarria mugaegunean eskuraketa egin behar den emate-prezinoa izango da.
  - d) Eskuraketa eragiten duena foru arau honen 4. artikuluan 2. zenbakiaren b) letran aipatzen diren finantza-kontratuak baten likidazioa bada, zerga-oinarria artikulu honen 1. zenbakiaren bigarren paragrafoan ezartzen denaren arabera zehaztuko da.

Hirugarrenen kontura ari diren subjektu pasiboek zenbaki honetan ezartzen diren arau bereziak aplikatu ahal izateko ezinbestekoa da eskuratzailak jakinaraztea arau horiek aplikatu ahal direla eta zerga-oinarria zenbatzeko kontuan eduki beharreko elementuen berri ematea.

3. Baldin eta subjektu pasibo batek zergapeko balore bat egun berean eskuratzen eta eskualdatzen badu, edo balorea egun berean eskuratzen eta eskualdatzen bada subjektu pasibo baten aginduz, eskuratzaila berarekiko, eta gainera bi eragiketak egun berean likidatzen badira, eskuraketen zerga-oinarria kalkulatzeko honako biderketa hau egin behar da: eskuratutako baloreen kopurutik egun berean eskualdatutako baloreen kopurua kendu eta emaitzako diferentzia positiboa bi eskuraketen kontraprestazioen batura eskuratutako baloreen kopuruaz zatitzearen emaitzako kopuruaz biderkatu. Kalkulu horretatik kanpo utzi behar dira foru arau honen 5. artikuluan salbuesitako eskuraketak eta salbuespen horien aplikazioaren esparruan egiten diren eskualdaketak.



## **8. artikulua. Zergadunak, subjektu pasiboak eta erantzuleak.**

1. Zerga honen zergadunak dira foru arau honen 4. artikuluan aipatzen diren baloreak eskuratzen dituztenak.
2. Zergaren subjektu pasiboa honako hau da, egoitza non duen gorabehera:
  - a) Eskuraketa bere kontura egiten duen inbertsio-zerbitzuetako enpresa edo kreditu-entitatea.
  - b) Eskuraketa egiten duena ez bada bere kontura ari den inbertsio-zerbitzuetako enpresa edo kreditu-entitatea, honako hau izango da subjektu pasiboa zergadunaren orde:
    1. Eskuraketa negoziazio-zentro batean eginez gero, subjektu pasiboa eskuraketa gauzatzen duen merkatuko kidea izango da. Hala ere, merkatuko kideari agindua ematean eskuratzaillearen kontura ari den finantza-bitartekari batek parte hartzen badu (edo gehiagok), subjektu pasiboa eskuratzaillearen agindua zuzenean hartzen duen finantza-bitartekaria izango da.
    2. Eskuraketa negoziazio-zentro batetik kanpo eginez gero barneratzaile sistematikoa baten jardun-esparruaren barruan, subjektu pasiboa barneratzaile sistematikoa izango da. Hala ere, eskuraketan eskuratzaillearen kontura ari den finantza-bitartekari batek parte hartzen badu (edo gehiagok), subjektu pasiboa eskuratzaillearen agindua zuzenean hartzen duen finantza-bitartekaria izango da.
    3. Eskuraketa negoziazio-zentro batetik kanpo eta barneratzaile sistematikoa baten jardun-esparrutik kanpo eginez gero, subjektu pasiboa baloreak eskuratzen dituenaren agindua jasotzen duen finantza-bitartekaria izango da, edo eskuratzaileri baloreak ematen dizkiona finantza-tresna edo finantza- kontratu baten betearazpenaren edo likidazioaren ondorioz.
    4. Eskuraketa negoziazio-zentro batetik kanpo egiten bada aurreko paragrafoetan aipatutako pertsona eta entitateetako ezeinek ere parte hartu gabe, subjektu pasiboa eskuratzaillearen kontura balore-gordailuaren zerbitzua egiten duen entitatea izango da.

Hori dela-eta, eskuratzailleak zerga ordaindu beharra dakarten inguruabarren berri eman beharko dio balore-gordailuaren zerbitzua egiten duen entitateari, eta zenbat ordaindu behar duen azaldu beharko dio.

3. Eskuratzailleak okerreko informazioa edo zehatza ez den informazioa ematen badio subjektu pasiboari eta horren ondorioz foru arau honen 5. artikuluan arautzen diren salbuespenetako bat aplikatzen bada, bidezkoa izan gabe, edo foru arau honen 7. artikulua 2. zenbakian zerga-oinarriaren kalkulurako ezartzen diren arau bereziak zorraren erantzule solidarioa izango da.

Erantzukizunak bidegabeko salbuespenaren aplikazioari edo zerga-oinarria kalkulatzeko arau bereziak oker aplikatzeari dagokion zerga-zorra hartuko du.

Gainera, artikulua honen 2. zenbakiaren b) letrako 4. puntuko kasuan, baloreen eskuratzailleak ez badu egiten bertan arautzen den komunikazioa, edo oker edo zehaztasunik gabe egiten badu, erantzule solidarioa izango da.

Erantzukizunak komunikazio-faltari edo okerreko edo zehaztasunik gabeko komunikazioari dagokion zerga-zorra hartuko du.

## **9. artikulua. Zerga-tasa.**

Zerga honen karga-tasa %0,2koa da.



## **10. artikulua. Aitortu beharra, ordaindu beharra eta dokumentazioaren inguruko betebeharrak.**

1. Subjektu pasiboek autolikidazioak aurkeztu behar dituzte eta haien emaitzako zerga-zorrak ordaindu behar dituzte. Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak foru agindu batean zehaztuko du aurkezpena eta ordainketa nola, non eta noiz egin behar diren.
2. Zerga ordainarazteko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiak badauka, subjektu pasiboek berari aurkeztu beharko dizkiote zergaren autolikidazioak. Autolikidazioetan nahitaez zehaztu behar da zenbateko kuota dagokion administrazio bakoitzari.

Norbaiti dirua itzuli behar bazaio, itzulketa Bizkaiko Foru Aldundiak egingo du.

3. Subjektu pasiboek egoitza Espainiako lurraldean daukan balore-gordailuzain zentral baten bidez aurkeztuko dituzte autolikidazioak eta sartuko dituzte zerga-zorrak. Araudi batean zehaztuko da nola eta zer kasutan egingo duten hori guztia.

Horretarako, subjektu pasiboek balore-gordailuzain zentralari eman beharko diote autolikidazioan agertu behar den informazio guztia eta horren emaitzako zerga-zorra ordaindu beharko diote, zuzenean zein hartan partaidetza daukan entitate baten bidez, subjektu pasiboa halakoa ez bada.

Balore-gordailuzain zentralak autolikidazio bat aurkeztuko du subjektu pasibo bakoitzeko, beraren izenean eta kontura, eta likidazioaldiko zerga-zorra sartuko du. Sarrera nola, noiz eta non egin behar den araudi batean zehaztuko da.

Zerga honen autolikidazioak aurkezteko prozedura, zenbaki honetan arautzen dena, Europar Batasuneko beste estatu batzuetako balore-gordailuzain zentraletan eta Europar Batasunean zerbitzuak egiteko onarpena jasotzen duten Batasunetik kanpoko balore-gordailuzain zentraletan ere aplikatu ahal izango da, egoitza Espainiako lurraldean daukan balore-gordailuzain zentral batekin lankidetzak-akordioa sinatuz gero.

4. Likidazioaldia hilabete naturala izango da.

Zerga honen zorrak ezin dira atzeratu ez zatikatu.

5. Artikulu honen 3. zenbakian xedatzen denaren arabera autolikidazioak aurkezten eta zerga-zorrak sartzen dituzten balore-gordailuzain zentralek ez dute edukiko inolako zerga-erantzukizunik aurkezpen eta sarrera horiengatik, eta haietan partaidetza duten entitateek ere ez.
6. Zergaren kontrola eta kudeaketa errazteko, egoitza Espainiako lurraldean daukan balore-gordailuzain zentralak, bertan partaidetza duten entitateek eta zergaren subjektu pasiboek zergapeko eragiketen dokumentazioa edo fitxategiak gorde behar dituzte, zerga administrazioak behar balitu ere.

Balore-gordailuzain zentralak eta bertan partaidetza duten entitateek subjektu pasiboak artikulu honen 3. zenbakian xedatzen dena aplikatuz ematen dien informazioa bertan aipatzen diren betebeharrak betetzeko baino ezin dute erabili: autolikidazioa aurkezteko eta zerga-zorra sartzeko. Informazio hori zerga administrazioari eman beharko zaio zergen arloko arautegian ezartzen diren kasuetan.

Aurreko paragrafoan xedatzen den kasuan izan ezik, eskatutako informazioa sekretua da. Balore-gordailuzain zentralak eta bertan partaidetza duten entitateek isilpean mantendu behar dute informazio hori.

## **11. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak.**

Foru arau honetan eta beraren garapenerako arauetan xedatzen dena ez betetzearen ondoriozko zergen arloko arau-hausteak kalifikatzeko eta zehapenak ezartzeko 2/2005 Foru

Arau Orokorra aplikatuko da (2/2005 Foru Arau Orokorra, martxoaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergei buruzkoa).

## **AZKEN XEDAPENAK**

### **Lehenengoa. Arauak emateko gaikuntza.**

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak foru arau hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emango dituzte.

### **Bigarrena. Indarreen jartzea.**

Foru arau hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarreen eta 2021eko urtarrilaren 16tik aurrera sortuko ditu ondorioa. Ekonomia Itunaren Hamargarren Xedapen Iragankorrean xedatutakoari kalterik egin gabe.